

GAIA: IKASTURTEA

Ikasturteak aurrera doaz
ederki eta geldiro,
nahiz ta batzutan ez den egoten
hor lan egiteko giro.
Aurrera, nola jarraitu nahirik
noizbait jotzen den enbido,
eta lanean behar bezala
aurkitzen gara berriro.

Aurtengo kurtso berria ere
hasi da zer esanekin,
berriro ere aurkitzen gara
nahi ez ditugun notekin.
Eta gainera lehen egunean
hemen dira zigorrekin,
bigarren hiruhilabetean
hobeto beharkoekin.

Zigorra nola aipatu dudan
orain azaldu beharko,
lan egiteko gogoarekin
aurkitzen baitnintzen flako;
egin nituen tontokeriak
nolako edo halako,
baina badakit ederki asko
zer dudan hurrengorako.

Ingeles kontuan beti bezala
aurtengoan be frakaso,
hitzak aurkitzen azaltzen zaizkit
barnean hainbat arazo;
galdetzea be, andereinoak
sarritan digu galazo,
egunen batez iritsiko da
berri hoberik, akaso.

Ingeles kontuan ibili izan naiz
oi, egoera txarrean
eta nekien dena ahaztuta
aurkitzen naiz bapatean.
Batzutan, noski, ez nago eta
egoera on-onean,
baina gaitzen bat etorriko zait
ingelesa dagoenean.

Andereñoak begiratzen nau
barrezka nagoenean,
sekula ez dit hark begiratu
txintxo-lasai naizenean;
horrexegatik egon behar dut
sarri askotan kalean,
okerrena da aita ta ama
konturatzen direnean.

Erderan ere antzerakoa
gertatzen da sarri asko,
irakurketan akats ugari
ta idazten ere plako;
sarriegitan gelditutzen naiz
«lo que se dice en blanco».
Eta guzti hau gertatzen ohi zait
gustatzen ez zaidalako.

Maixuak esaten ari zaizkit
ikas ezazu gehiago,
nere ustetan erdera falta
nere barnean ez dago;
eta berdin dit nahiz eta jakin
eurak baino gutxiago:
euskaraz ongi asko dakit eta
hortaz oso harro nago.

Esan bezala euskera dut nik
gogokoen eta aintzat,
erabiltzen dut bai kalean ta
edozertan mintzagaitzat;
gure euskara jo genezake
hizkuntzarik onenentzat.
Ez daki askok zer balio dun
hemen euskarazko hitzak.

Hizkuntza honetan nabil ondoen
eta sendoen ere bai,
Zeren euskara nik mintzatzen dut
oso ondo eta nonnahi.
Ikusten baitut neure burua
hor edozertarako gai.
Triste aurkitzen naizenean be
hark jartzen nau oso alai.





Matematika kontuan ere
aurkitzen naiz oso libre,
erreztasuna sentitzen dut ta
aurrerako hainbat bide;
esan nezake zenbakiekin
egin naizela senide,
seguru asko nagusitzean
direla neure lankide.

Nik ez nuke nahi inondik ere
zenbakiak ahaztutzea,
zeren eurekin gustatzen baitzait
gau luzetan amestea;
matematikaz eskatuko dut
egunero jostatzea,
zenbakiekin gustatzen baitzait
abenturak egitea.

Baita ere hor aipatu behar
ahaztu ezin den Natura,
idea berri eder ugari
bait dakakigu burura.
Gai pila batez osatua da
txukuna dauka itxura,
inguruan zer gertatutzen den
egin zintezke kontura.

Gizarte arlo horretan ere
aurkitzen naiz ni dexente,
nere ustetan ederki asko
egiten baitiot frente;
lan horietan ihardesten diet
eserita edo tente,
zeren gustuko dut arlo hau-ta
ondo nahi nuke bete.

Azaldu ditut arlo guztiak
onen edo ta txarrenak
hauek izan dira guztiak
buruak eta barrenak;
nahiz eta guri ere iritsi
nota horiekin penak,
behar bezala puntuatuak
egon daitezela denak. ■